

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Existentziaren auzi gordina

Gaur Bilboko kaleak presoen etorbide bilakatzeko konpromisoa erakutsiko dute milaka eta milaka aberkidek, beste behin ere. Gaur bertan egunkari hone-tan askotariko pieza eder askoak irakur daitezkeenez, beste kontu batez arituko naiz, aurrekoan minkideak aipatu zidanaren harira. Izan ere, dena pikutara omen doa, giza espeziarengan esperantza oro galdu du, ez dagoela zereginik, hau guzti hau bukatzera doala, nola bukatuko den dela ikuskizun dagoen bakarra... Etorkizunaz eta existen-tziaz filosofatzera nator, etorkizuneko teknologia in-portanteena filosofia bera dela konbentzituta.

Etorkizuna egongo al da? Zeren badakigu existentzia kolektiboa bukatuko dela. Nola gertatuko da? Ozono geruzaren higadurarekin? Agian asteroide erraldoi ba-ten talkarekin? Negu nuklear amaigabea? Antibioti-koen osteko aroan jokaera basatia hartu duten bakte-rioen erruz? Noragabe, gugana zuzen-zuzen datorren eta den-dena irensten duen zulo beltz batek zurrupatu-ta? Datozen hiru mila argi-urteetan gertatuko den su-pernoba baten gama izpien eztandak bete-betea ha-rrapatuta? Erdi lo dagoen supersumendi baten esna-tzearekin? Eta horiek guz-tiak salbatu, ekiditen asma-tuta ere, eguzkia desagertu baino lehen eguzki sistema-tik ihes egitea lortuta ere, unibertsoa zopa subatomiko batean desegingo da, gizakiarena bezala aitortu ahal den ezer bizitzeko aukerarik gabe utziz.

Ez omen dago ihesbiderik, ez saihebidetik, ezta bi-dezidorrik ere. Esperantza bakarra dago: hondamen-dia urrutiegi dagoela. Argiak itzali egingo dira, eta kon-tua omen da bitartean zenbateko distirarekin erreko diren. Ezjakintasuna ez da zorion bete-betea ere; baina lagungarria da, bai. Zuhurra baita gure deuseztatze ko-lektibo saihetsezina ahaztea, batez ere, alfer-alferrik, adoregabetzeko, gu etsitzeko daukan ahalmenagatik.

Baina galdera da: zer gertatzen da, auzi psikologiko gordin bezala, gizateriaren amaiera, gu guztion akabe-ra, minkideak bezala, burutik kendu ezin dugunean? Bi motatako erantzunak daude, biak kezkatzeko mo-

dukoak. Amaiera kolektiboak etsitzen gaitu, planeta bezala, egiazki, azkenetan gaudelako; edo, etsita gaude egiatan azken eguna egongo delako. Nago, hondamen-diaren irudipen horrek, bizitzaren antzutasunaren an-tzeztoki horiek guztiek lotura handia dutela orain bizi garenok egunen batean hilko garen ideiarekin.

Irudipen horrek mundu honetan bilatzen eta balora-tzen dugunaren inguruko konfiantza, pipiak bezala, barrutik jaten du. Gure motibazioetan eragin depresi-bo bat du. Baina, galdera ere badakar altzoan: gu eta maite ditugunak izateari utziko diogula ziur egon arren, horrek ez al digu gutxiago inporta ezezagun den, identitate definitua ez duen, existentziara etor-tzeaz den jendearentzat etorkizun baten faltak baino?

Nire ustez, epe luzeko gure planekin batera, etorki-zuneko konpromiso eta oraingo proiektuen ondoan, gehienak nolabaiteko etorkizun bat auresuposatzen dutenak, badago zorion sinple bat: jatetik, edatetik, sentitzetik, pentsatzetik, lagunekin hitz egitetik, larrua

Gure zoriona ez du balioztatuko etorkizun kolektibo batek bakarrik. Orain eta hemen bizitakoaren balioa aitortzea, gure buruaz disfrutatzea, da gakoa

jotzetik, umeak haztetik, jolastetik, musika, natura edo dantza disfrutatzetik, istorioak kontatu eta entzutetik datorrena. Guztiz ondradu eta legitimoa dena, eta bere legitimitatea ez dator etorkizun baten bahitua izatetik.

Orain eta hemen bizitzeko modu arrazoigarri bat bi-latzen saiatzeak, laguntza eta zaintza beharrean dau-denak lagundu eta zaintzeak, gauzak diren moduan estimatzeak, eman izan zaigunagatik esker oneko iza-ten saiatzeak, berezko balioa dauka. Eta horrekin bate-ra, etorkizunak hartzen duen bidea hartuta ere, bizitza bera mirari naturala dela barneratzeak. Gizateriaren balizko akabera batek gu adoregabetzea akats larria da. Etorkizun kolektibo batek bakarrik ez duelako gure zo-riona balioztatuko. Orain eta hemen bizitakoaren ba-lioa aitortzea, gure buruaz disfrutatzea, da gakoa. •